

# LAUDIO



# ikastola

2016ko apirila



# OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO TXOSTENA



# aurkezpena

*Kaixo bazkide,*

*Datorren astean izango da Laudio Ikastolako Guraso Kooperatibaren Urteko Batzar Orokorra.*

*Beraz, Ikastolako guraso guztiak gonbidatuta zaudete urteko batzar horretara.*

*Gogoan izan bertan landuko ditugula zuen seme-alaben hezkuntzarako garrantzitsuak diren gai nagusiak.*

*Bertan jorratuko ditugun gaiak biltzen dituen txostena helarazten dizuegu baita jorratuko dugun gai zerrenda ere.*

*Bilerak duen garrantziaz ohartu eta bertaratuko zaretelakoan agurtzen zaituztet.*

*Adeitasunez*

*Ixone Urkijo  
Ikastolako lehendakaria*

*aurkibidea*

2015 EKITALDIAREN EMAITZA KONTUA . . . . .	.3
2015 EKITALDIAREN EGOERA BALANTZEA . . . . .	.4
EGOERA EKONOMIKOAREN HAUSNARKETA . . . . .	.5
2016 EKITALDIRAKO AURREKONTUA . . . . .	.6
2016 EKITALDIRAKO KUOTA PROPOSAMENA . . . . .	.7
GELAKO GURASO ORDEZKARIAK . . . . .	.8
AUZOLANA . . . . .	.9
MANTENTZE-INBERTSIOAK . . . . .	.10

# 2015 EKITALDIAREN emaitza kontua

2015

2014

**A) ERAGIKETA JARRAITUAK**

<b>1. Negozio-zifraren zenbateko garbia</b> .....	<b>1.245.433</b>	<b>1.126.312</b>
a) Salmentak .....	1.245.433	1.126.312
<b>4. Hornikuntzak</b> .....	<b>(280.387)</b>	<b>(273.997)</b>
a) Salgaien kontsumoa .....	(62.550)	(59.864)
b) Lehengaien eta bestelako material kontsumigarrien kontsumoa .....	(158.809)	(168.568)
c) Beste enpresa batzuek egindako lanak.....	(59.029)	(45.565)
<b>5. Ustiapeneko bestelako sarrerak</b> .....	<b>3.154.378</b>	<b>3.106.374</b>
a) Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk .....	121.891	137.178
b) Ekitaldiko emaitzan sartutako ustiapeneko diru-laguntzak .....	3.032.487	2.969.196
<b>6. Pertsonal gastuak</b> .....	<b>(3.555.632)</b>	<b>(3.458.055)</b>
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak.....	(2.754.646)	(2.676.412)
b) Karga sozialak .....	(800.986)	(781.643)
<b>7. Ustiapeneko bestelako gastuak</b> .....	<b>(311.987)</b>	<b>(295.038)</b>
a) Kanpoko zerbitzuak .....	(278.625)	(280.136)
b) Tributuak .....	(4.844)	(1.317)
c) Eragiketa-komertzialeko galerak, narriadurak eta hornidura-aldakuntzak .....	(4.132)	(1.122)
d) Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak .....	(24.386)	(12.463)
<b>8. Ibilgetuaren amortizazioa</b> .....	<b>(234.278)</b>	<b>(160.142)</b>
<b>9. Ibilgetu ez-finantzarioko diru-laguntzen eta bestelakoen egozpena</b> .....	<b>29.615</b>	<b>34.037</b>
<b>12. Hezkuntza, heziketa eta sustapenerako fondoa</b> .....	<b>(2.458)</b>	<b>(7.114)</b>
a) Doikuntza.....	(2.458)	(7.114)
<b>A.1) USTIAPENeko EMAITZA</b> .....	<b>44.685</b>	<b>72.376</b>
<b>13. Sarrera finantzarioak</b> .....	<b>2.182</b>	<b>5.594</b>
b) Balore negoziagarrien eta bestelako finantza-tresnen sarrerak .....	2.182	5.594
b2) Hirugarren enpresetakoak.....	2.182	5.594
<b>14. Gastu finantzarioak</b> .....	<b>(22.561)</b>	<b>(13.944)</b>
b) Hirugarrenen zorrenak .....	(22.561)	(13.944)
<b>A.2) EMAITZA FINANTZARIOA</b> .....	<b>(20.379)</b>	<b>(8.349)</b>
<b>A.3) ZERGA AURREKO EMAITZA</b> .....	<b>24.306</b>	<b>64.027</b>
<b>18. Mozkinen gaineko zerga</b> .....	<b>(2.185)</b>	<b>(6.403)</b>
<b>A.4) ERAGIKETA JARRAITUEN EKITALDIKO EMAITZA</b> .....	<b>22.121</b>	<b>57.624</b>
<b>A.5) EKITALDIKO EMAITZA</b> .....	<b>22.121</b>	<b>57.624</b>

# 2015/12/31 DATAZ EGINDAKO egoera balantzea

AKTIBOA	euroak BALANTZEA 2015	euroak BALANTZEA 2014
<b>A. AKTIBO EZ KORRONTEA</b>	<b>4.693.979</b>	<b>4.611.469</b>
<b>I. Ibilgetu ukiezina</b>	-	-
<b>II. Ibilgetu materiala</b>	<b>4.550.191</b>	<b>4.524.240</b>
1. Lurrak eta eraikuntzak	3.599.516	3.538.977
2. Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala	950.674	985.263
<b>IV. Taldeko enpresetako eta elkartuetako epe luzeko inbertsioak</b>	<b>68.298</b>	<b>68.298</b>
1. Ondare tresnak	57.490	57.490
3. Zorra adierazten duten baloreak	10.808	10.808
<b>V. Epe luzeko finantza-inbertsioak</b>	<b>75.490</b>	<b>18.932</b>
1. Ondare-tresnak	17.898	17.898
2. Hirugarrenetik hartzeak	57.592	-
5. Bestelako aktibo finantzarioak	-	1.034
<b>B. AKTIBO KORRONTEA</b>	<b>702.136</b>	<b>723.560</b>
<b>II. Izakinak</b>	<b>22.977</b>	<b>22.977</b>
1. Merkataritzakoak	16.088	16.088
2. Lehengaiak eta bestelako hornikuntzak	6.888	6.888
<b>III. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak</b>	<b>32.241</b>	<b>99.963</b>
1. Bezeroak, salmentengatik eta zerbitzu-erateengatik	2.450	2.834
3. Hainbat zordun	-	736
6. Administrazio publikoetik hartzeak	29.791	96.393
<b>V. Epe laburreko inbertsio finantzarioak</b>	<b>404.140</b>	<b>534.067</b>
5. Bestelako aktibo finantzarioak	404.140	534.067
<b>VI. Epe laburreko periodifikatzeak</b>	-	<b>3.729</b>
<b>VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak</b>	<b>242.778</b>	<b>62.824</b>
1. Diruzaintza	242.778	62.824
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>5.396.115</b>	<b>5.335.029</b>

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	euroak BALANTZEA 2015	euroak BALANTZEA 2014
<b>A. ONDARE GARBIA</b>	<b>3.990.052</b>	<b>3.916.821</b>
<b>A.1 Furts propioak</b>	<b>1.278.623</b>	<b>1.146.777</b>
<b>I. Kapitala</b>	<b>56.714</b>	<b>54.797</b>
1. Kapital eskrituratu	56.714	54.797
<b>II. Erreserbak</b>	<b>1.199.788</b>	<b>1.034.356</b>
3. Estatutueto erreserbak	112.281	100.755
4. Beste erreserbak	1.087.508	933.600
<b>V. Kooperatibaren soberakina (negatibo edo positibo)</b>	<b>22.121</b>	<b>57.624</b>
<b>A.3 Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak</b>	<b>2.711.429</b>	<b>2.770.045</b>
<b>B. PASIBO EZ-KORRONTEA</b>	<b>880.384</b>	<b>720.226</b>
<b>I. Hezkuntza eta sustapen kooperatiborako eta interes publikoko bestelako xedeetarako ekarpena (COFIP)</b>	<b>43.041</b>	<b>49.972</b>
<b>III. Epe luzeko hornidurak</b>	<b>253.158</b>	<b>241.874</b>
1. Pertsonalaren epe luzeko lansarien obligazioak	253.158	241.874
<b>IV. Epe luzeko zorrak</b>	<b>576.722</b>	<b>409.276</b>
2. Kreditu erakundeetik zorrak	512.511	345.352
5. Epe luzeko bestelako partaidetzak	64.211	63.924
<b>V. Taldeko enpresekiko, elkartuekiko eta bazkideekiko epe laburreko zorrak</b>	<b>7.462</b>	<b>19.103</b>
1. Taldeko enpresekiko zorrak	7.462	19.103
<b>C. PASIBO KORRONTEA</b>	<b>525.679</b>	<b>697.982</b>
<b>V. Epe laburreko zorrak</b>	<b>47.492</b>	<b>46.162</b>
2. Kreditu erakundeetik zorrak	47.488	46.246
5. Epe laburreko bestelako partaidetzak	4	(84)
<b>VI. Taldeko enpresekiko, elkartuekiko eta bazkideekiko epe laburreko zorrak</b>	<b>11.370</b>	<b>11.543</b>
1. Taldeko enpresekiko zorrak	11.370	11.543
<b>VII. Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak</b>	<b>466.816</b>	<b>639.213</b>
1. Hornitzaileak	37.512	110.099
3. Hainbat hartzekodun	174.560	265.327
4. Pertsonala	34.810	34.715
5. Zerga korranteengatik pasiboak	2.185	6.403
6. Administrazio Publikoetik bestelako zorrak	217.750	222.669
<b>VIII. Epe laburreko periodifikatzeak</b>	-	<b>1.064</b>
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>5.396.115</b>	<b>5.335.029</b>

# egoera ekonomikoaren hausnarketa

2015 ekitaldia behin amaitua planteatu genituen kontuekiko desbideratzea azaltzeko garaia iritsi da. Urtero egiten dugun bezala, Ikastola kanpoko ikuskaritza enpresa batek kontuak berrikusi ditu eta idazkaritzan bazkide guztiek eskuragarri duten auditoria txostena aurki daiteke.

Ekitaldi osoan zehar kontuen jarraipen zehatza egiten dugunez eta Ikastolak dituen behar ugariak ase nahian, erabakiak hartzen goaz bilakaeraren arabera.

## GASTUAK

Gastu guztiei dagokienez, orotara egondako desbideraketa %3koa izan da. Atalez atal begiratzuz gero, soldatek gastu guztien %81a suposatu dute 2015ean. Irakasleri osoari erreparaturik, orokorrean ez dago desbideratze aipagarriarik, baina bi salbuespen aurki ditzakegu: Hezkuntza Bereziko laguntzaileen artean, joan den abuztuan Jaurlaritzak diru laguntza honi dagokionez murrizketa oso esanguratsua aplikatuko zigula jakinarazi zigun. Ikastolak bere aurrekontutik neurri batean laguntzaileen orduak mantendu dituen arren, ez da posible izan ordu guztiak mantentzea eta beraz arlo honi dagokionez orduak jaitsi behar izan ditugu.

Bestalde, ordezkapenen partidak aurreikusitakoa gainditu du. Ikasturtean zehar hainbat langile izan baititugu gaixotasun baja luzeekin. Partida honen aurreikuspena egiteak beti hainbat buru hauste sortarazten dizkigu, oso zaila egiten zaigu.

Mantenuko partidan BHko etapan egindako atontze lanen kostea aurki dezakegu, materialaren kostea zein arotzeria lanen kostea. Hasierako kontuetan lan guzti hauek inbertsioaren kontsiderazioa izan duten arren, behin auditoria pasatu ondoren, lan guzti hauek ekitaldikoko gastu bezala kontsideratzea erabaki dugu, margotze lanak eta arotzeria lanak direlako gehien bat.

Finantza gastuen artean ere desbideratze handia egon da, izan ere 2015eko aurrekontuak planteatu zirenean ez ziren kontuan hartu uztailean sinatu genituen maileguak. 3 entitate ezberdinekin sinatu ziren 3 mailegu, Laboral Kutxa, Kutxabank eta Rural Kutxarekin. Maileguei dagokienez, 2 urteko kadentziarekin sinatu ziren; 2 urteko epean erabil dezakegu eskatu dugun dirua. Lehen urtean erabilitako kopuruaren gaineko interesak ordainduko ditugu bakarrik uztaile arte. Mailegu hauek Ikastolan 2015eko udan egindako obrak finantzatzeko erabili dira.

Oso obra handiak egin genituen joan den udan, Ikastola nagusiko komun guztiak erabat eraberritu baikenituen, LH eta BHkoak. Obra guzti hauek ordaindu ondoren oraindik mailegua erabiltzeke daukagu eta datorren udan egin beharko ditugun obrak honen bitartez finantzatu beharko ditugu.

Azkenik, amortizazio kontableen artean amortizatzeko irizpide aldaketa bat egon da eta horregatik egon izan da hain desbideratze handia partida honetan. Amortizazio kontableak inbertsio baten narriadura, higadura suposatzen du, urte horretako inbertsio hortatik gastuetara erooten den zatia.

## SARRERAK

Sarrerei dagokienez, %4ko desbideratzeak egon dira orokorrean hitz eginez. Kuotek sarrera guztien %27a suposatzen dute. Gelaz kanpoko ekintzen kuotak orain arte ez zuten Ikastolako kuoten kontsiderazioa eta horrela jasoak zeuden kontuetan. Irizpide aldaketan honen ondorio da desbideratzearen arrazoi nagusia.

Jaurlaritzatik jasotzen ditugun diru laguntzei dagokienez, sarrera guztien %65a suposatzen dute. Berrikuntza bezala, Haur Hezkuntzako obrak finantzatzeko maileguak diruz laguntzeko laguntza eman digu Jaurlaritzak. Hezkuntza itunei dagokienez ez da egon desbideratzerik, eta hau oso esanguratsua da.

# 2016 EKITALDIRAKO

# aurrekontua

GASTUAK	euroak AURREKONTUA 2016	euroak AURREKONTUA 2015
<b>LANSARIAK</b>	<b>3.638.682</b>	<b>3.501.688</b>
Irakasleoa	2.175.551	2.099.784
Administrazioa	84.357	80.877
Jantokia+garraioa	170.125	158.016
Mantenimendua-garbiketa	110.787	109.389
Ordezkapenak	146.450	128.146
Aurrejubilazioak-Liberatu sindikalak	135.196	137.168
Enpresaren kargurako G. Segurantzza	793.731	765.869
Gastu Sozialak	22.485	22.439
<b>PRESTAKUNTZA</b>	<b>4.300</b>	<b>22.603</b>
<b>FUNTZIONAMENDUA</b>	<b>175.265</b>	<b>155.808</b>
<b>FEDERAZIOAK</b>	<b>1.661</b>	<b>1.661</b>
<b>MANTENIMENDUA</b>	<b>131.530</b>	<b>131.214</b>
<b>JANTOKIA</b>	<b>115.307</b>	<b>131.245</b>
<b>KOMUNIKAZIOA</b>	<b>18.426</b>	<b>5.300</b>
<b>GARRAIOA</b>	<b>77.000</b>	<b>77.000</b>
<b>FINANTZ GASTUAK</b>	<b>16.711</b>	<b>12.490</b>
<b>IKASTOLAKO BEKAK</b>	<b>29.473</b>	<b>25.129</b>
<b>BESTELAKO GASTUAK/ EKE</b>	<b>65.119</b>	<b>60.609</b>
<b>URTEKO AMORTIZAZIOA</b>	<b>174.688</b>	<b>156.338</b>
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>4.448.161</b>	<b>4.281.086</b>

SARRERAK	euroak AURREKONTUA 2016	euroak AURREKONTUA 2015
<b>EUSKO JAURLARITZA</b>	<b>2.912.831</b>	<b>2.804.579</b>
Hezkuntz Kontzertuak	2.579.830	2.480.874
Inbertsioak	8.532	0
Proiektuak- 0-3 urte	140.861	135.544
Bestelako kontzeptuak	183.608	188.161
<b>LAUDIOKO UDALA</b>	<b>54.590</b>	<b>54.590</b>
<b>KUOTAK</b>	<b>1.165.076</b>	<b>1.119.975</b>
Ikastola	489.631	498.479
Jantokia	367.092	356.821
Garraioa	26.356	24.983
Bestelakoak	7.150	7.150
Aparteko kuota	77.980	75.600
Inbertsio kuota	162.854	156.942
GKE/Gelaz Kanpoko Ekintzak	34.014	
<b>BESTELAKO SARRERAK</b>	<b>118.433</b>	<b>115.370</b>
<b>KAPITAL DIRULAGUNTZAK</b>	<b>124.740</b>	<b>124.740</b>
<b>ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK</b>	<b>39.075</b>	<b>35.929</b>
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>4.414.745</b>	<b>4.255.184</b>
<b>2016 EKITALDIAN SORTUKO DIREN ERREKURTSOAK</b>		<b>-33.415</b>

2016 EKITALDIRAKO BANKU AMORTIZAZIOEN AURREIKUSPENA **42.841**

Irakasleen kasuan, ordainketa eskuordetu-  
an dauden irakasleen kasuan bederen  
Jaurlaritzak ordaintzen ditu beraien jarraipen  
sariak. 2015 ekitaldian bai sarreretan baina baita  
gastuen artean ere jarraipen sari hauek islatzen  
dira, bi ataletan kontrapartidak aurkitzen dira eta  
beraz emaitzetan ez du apenas eraginik.

Horrela 2015eko emaitzara iritsiko  
ginateke: 22121 €.

## 2016RAKO AURREKONTUA

2016ko kontuei dagokienez, eremurik aipa-  
garriena soldaten auziari dagokiola esan nahiko  
genuke; izan ere soldatek duten pisua hain da han-  
dia bertan ematen diren aldaketek, txikiak izan

arren, oso bolumen handia hartzen dutela.

2016ko urtarriletik aurrera LABek eta  
Ikastolen Elkarteak 2009ko Lan Hitzarmeneko  
soldaten taulen ordaintzea adostu dute. Berez ezin  
da esan Lan hitzarmeneko soldaten taulak  
berreskuratu direnik, Jaurlaritzako itunak ez  
baitira berreskuratu. Baina, hainbat laguntza  
eskuratu berri ditugu edo handitu egin dira  
(ordezkapenen partida, eremu publikoko soldaten  
igoera, ...) eta horiek soldaten taulak ordaintzeko  
erabiltzea erabaki du Elkarteak eta beraz Laudio  
Ikastolak ere.

Horregatik gaur egun esan dezakegu sol-  
daten taulen ordainketak berreskuratu ditugula  
nahiz eta taulak ez ditugun berreskuratu, mu-  
rrizketekin jarraitzen baitugu.



# 2016RAKO kuota proposamena

Laudio Ikastolako Artezkaritza Batzordeak ez du kuota igoerarik proposatu-ko 2016 urterako aurrekontuetan. Urte hasierako hilabeteetan aplikatu ohi dira aurrekontu proposamenek aurreikusitako kuota igoerak desorekak ekiditeko baina aurten, 2015 urtean bezala eta bizi garen egoera ekonomikoa kontuan hartuta, Artezkaritza Batzordeak aurrekontuak kuota igoerarik aplikatu gabe osatzeko asmoa du.

## KUOTEN KOBRANTZAREN ANTOLAKETA BERRIA

Orain arte Eskolaz Kanpoko Ekintzak atal barruan kudeatu izan ditugun kobrantza kontzeptuen antolaketa berria

bideratuko du Ikastolak otsailean jaulkiko diren ordainagirietan.

2 urtetik aurrerako ikasle guztiek Ikastolako ordainagirian "Eskolaz Kanpoko Ekintzak" kontzeptupean ordaintzen duten 3,62 euroko kontzeptua, Ikastolaren jarduera pedagogikoarekin lotuta bideratzen diren ekintza osagarriak barne hartzen dituena, Gelaz Kanpoko Ekintzak, GKE, kontzeptu bezala azalduko da aurrerantzean.

Eskolaz Kanpoko Ekintzetarako Batzordeak antolatzen dituen eskola ordu-tegitik kanpoko ekintzen kobrantza berriz, Guraso Elkartearen izenean jaulkiko den aparteko ordainagiri batean azalduko da aurrerantzean.

HILABETEROKO KUOTAREN KALKULUA	FAMILIA KUOTA (IKASLE GAZTEREA)	IKASLE GUZTIEK	KUOTA GEHIGARRIAK
0 urte	A+	B+	J
urte 1	A+	B+	J
2 urte	A+	B+C+D	2+J
3 urtetik aurrera	A+	B+C+D	J+G

IKASTOLAKO KUOTA	
FAMILIAK	HILEKO
<b>A</b> Inbertsioak-lanak	24,63 €
IKASLEAK	HILEKO
<b>B</b> 0 urte - sehaska	259,93 €
urte 1 - katuka	182,61 €
2 urtetik Batxilergora	46,98 €
<b>C</b> Aparteko kuota	10,00 €
<b>D</b> Gelaz Kanpoko Ekintzak	3,62 €
2 URTE gehigarriak	HILEKO
<b>2</b> 2 urte haurtzaindegia	135,64 €
2 urte asistentziala	26,59 €

## ZERBITZUAK

G GARRAIOA	HILEKO
Zeberio HH-LH	81,57 €
Zeberio DBH	69,91 €
Ugao-Arrankudiaga, HH/LH	68,87 €
Ugao-Arrankudiaga, DBH	57,21 €
Laudio-Arakaldo, HH/LH	44,16 €
Laudio-Arakaldo, BH	44,16 €
Gardea goizez	32,61 €
Balmaseda	53,90 €
Amurrio	49,54 €

J JANTOKIA	HILEKO
Ohikoak 1, 2 eta 3 urte	100,67 €
Ohikoak HH, DLH eta DBH	70,56 €
Ohikoak DBH, 3 egun	42,34 €
Ez Ohikoak 1-2-3 urte (eg.)	8,75 €
Ez Ohikoak gainerakoak (eg.)	7,30 €
Laguntzaile txanda (urtea)	166,78 €
Laguntzaile txanda (DBH/3eg.)	100,10 €

# GELAKO GURASO ORDEZKARIAK

*Nabaria da ikastola osatzen dugunon parte hartze maila asko jaitsi dela azken urteotan. Hau bultzatu asmoz Artezkaritzako gurasook proposamen berri bat aurkeztu nahi dizuegu: gelako guraso ordezkariak (GGO) izendatzea eta guraso ordezkarien batzordea (GOB) osatzea.*

## HELBURUAK:

- 1. Ikastolako komunitate osoaren arteko komunikazioa erraztea, feedbacka eta berehalakotasuna bermatuz. Adib.: irteera zehatz batean helmuga aldatzen dela, Korrikako KMa non hasten den ...*
- 2. Ikastolako komunitate osoaren parte hartzea AREAGOTZEA. Esaterako, jarduera zehatz batean boluntarioak behar ditugunean ...*
- 3. Bazkideok hartzen ditugun erabakien inguruan ondo informatuak egotea. (Adib.: auzolanaren funtzionamenduaren hedatzea, eskola egutegia zabaldu ...)*

*Ekimen honen bidez EZ dira arazo partikularrak ezta pedagogikoak landuko, horiek lantzeko Ikastolak baduelako propio sortutako protokoloa (Tutore-Ikasketa Burua-Zuzendaria). Helburua da guraso ezberdinek komunean izan ditzaketen gaiak lantzea. Guraso ordezkarien bilera zein guraso ordezkariaren figura ez dira figura erabakitzaileak izango; horretarako Ikastolak baduelako bazkide guztiez osatutako Asanblada eta berau ordezkatzeko Artezkaritza Batzordea ere.*

## FUNTZIONAMENDUA: AUKERAKETA, BALIABIDEAK, DEIALDIAK ETA ZEREGINAK.

### Aukeraketa

*Ikasturtearen hasieran, mailako bileretan, gela bakoitzeko guraso ordezkaria eta honen ordezkoa aukeratuko dira, modu boluntarioan. Boluntario bat baino gehiago baldin balego, hauen artean aukeratuko da. Boluntariorik ez balego, aldiz, ez da gela ordezkari egongo. Horrela balitz, gela horiek komunikazio bide honi*

*uko egingo liokete. Bilera hauetan, guraso ekimena den heinean, Artezkaritza Batzordekide batek parte hartuko du eta bera izango da azalpena eta aukeraketaren dinamizatzailea.*

*Ikastolako langileak eta Artezkaritza Batzordeko kideak ezingo lirateke izan Gelako Guraso Ordezkari.*

*Ordezkariek ziklo hasieratan aukeratuko dira; ahal dela ziklo osoan mantenduz Haur Hezkuntzan 0,1,2 urte eta 3,4,5. LH 1,2; LH3,4; LH 5,6; DBH 1,2 eta DBH 3, 4; BATXI 1, 2.*

### Baliabideak

*Ordezkaria hautatu ostean gurasoen arteko komunikazio bidea adostuko da. Ikastolak GGO bakoitzari gelako gurasoen informazioa (izen-abizenak, telefono zenbakiak eta posta elektronikoko helbideak) emango dio. Baten batek ez balu daturik eman nahi ikastolari jakinarazi beharko lioke. Hau egin ezean, baimena ematen duela suposatuko da.*

*Ikastolak gurasoei biltzeko lekua bermatuko die.*

### Bilera deialdiak

*Gelako gurasoen herenak edo gehiagok eskatuta. Zuzendaritzak deituta. Artezkaritza-batzordearen ordezkariak proposatuta.*

### GGO-ren zereginak

- Gelako gurasoen arteko komunikazio-bidea ziurtatu.*
- Gelako gurasoekin egingo diren bileren deialdia egin, gai ordena finkatu eta bilera zuzendu. Idazkaria izendatu beharko da akta hartu ahal izateko.*
- Gai ordena eta akta bere gelako gurasoei, eta*



*behar izanez gero dagokionari, helaraziko dizkie.*

- *Guraso ordezkarien batzordeak deitutako bilere-tan (GOB) parte hartu.*
- *GOB-aren bileretan edo ikastolaren edozein ataletik jasoko duen informazioa bere gelaren gurasoei helaraztea.*
- *Ikastolak bere ohiko funtzionamenduan izango dituen beharrak asetzeko gurasoen artean laguntza bilatzea bakoitzaren trebetasunak eta aukerak kontuan hartuz (Adib.: KROSSa, Araba Euskaraz, Ikastolako jaia ...).*

### **GURASOEN ORDEZKARIEN BATZORDEA (GOB): OSAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA.**

*Gurasoen Ordezkarien Batzordea (GOB) Gelako Gurasoen Ordezkariak (GGOek) osatuko dute, artezkaritza-batzordearen kide batekin eta behar izatekotan zuzendaritza taldearekin.*

*Artezkaritza-batzordearen ordezkaria*

*GOBren dinamizazioan arituko da, bileren jarraipenaren ardura hartuko duelarik.*

*Idazkaria izendatu beharko da akta hartu ahal izateko.*

*GOB, printzipioz, ikasturtean birritan biltzea proposatzen dugu. Gai ordena GGO eta Artezkaritza kideen ekarpenekin osatuko da:*

*1. GGOen iradokizunak edota proposamenak azalduko dira eta dagokion batzordera bideratuko dira (eke, jantoki ...).*

*2. Bestalde, artezkaritzak pedagogia, ekonomia, mantenu eta funtzionamendu orokorreko arloetan hartutako erabakirik garrantzitsuenak laburbilduko dira.*

*GGO bakoitzak informazioa helaraziko die bere gelako gurasoei eta Artezkaritzako kideak, Artezkaritza batzordea.*

# AUZOLAN KOOPERATIBOAREN BALORAZIOA

*Iazko asanbladan onartu bezala, urritik aurrera auzolanaren proiektua martxan jarri izan dugu. Joan den urritik aurrera hilero birritan auzolaneko deialdiak egin ditugu eta 65 familiatik gora etorri izan dira Ikastolara ostiral zein larunbatetan. Gaur egun arte parte hartu dute familien artean 961 ordu bete izan dituzte. Ikasturte amaieran, familien ordu guztien konputua egin ondoren, dagokien inbertsio kuota itzuliko zaie.*

*Jadanik badaude hainbat familia 30 orduetik gora egin dutenak. Gurasoen auzolanari esker, bigarren hezkuntza osoaren eta LH 5 eta 6. Mailako gela eta pasilloen atontzea egin ahal izan dugu. Gela eta pasillo guztiak margotu dituzte eta oso erritmo azkarrean gainera! Ikastolako Artezkaritza Batzordetik eskerrik beroenak eman nahi ditugu bertan parte hartu duten guztiei.*



# MANTENTZE-INBERTSIOAK




## 2015 URTEKO INBERTSIO PLANA

*2015 urtean Ikastolako instalazioak eraberritzeko dinamika Lehen eta Bigarren Hezkuntzara hedatu dugu. 215.330 euroko inbertsioa burutu da egoitza nagusiko komunak berritzeko. Honez gain 21.178 erabili ditugu auzolana bidez bideratu dugun gela eta pasilloen atonduran. IKT baliabideei dagokienez 33.498 inbertsioa burutu dugu ikasleek egunerokoan darabiltzaten ekipoetan.*

## 2016 URTEKO INBERTSIO PLANA

*Egoitza nagusiaren mantenuari dagokionez edifizioaren estalkia eta fatxadak egokitu beharra azaldu berri da eta horretara bideratu beharko da inbertsioen zati handiena. Horrez gain emaitza oparoak ematen ari den Auzolan egitasmoa elikatzen jarraituko dugu. IKT baliabideen alorrean, 30.000 euro inguruko inbertsioa aurreikusten da, ikasleen ekipoen berriztapena Lehen Hezkuntzara zabaltzen hasiko garelarik.*



# OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

*Laudio Ikastolako Artezkaritza Kontseiluak Kooperatibako bazkide guztiak 2016ko apirilaren 19an ospatuko den Ohiko Batzar Nagusira deitzen ditu.*

*Asanblada kooperatibaren egoitza sozialean burutuko da, Laudio herriko Motxotekale kaleko 16.an, Ikastolako Areto Nagusian, arratsaldeko 17:30ean lehenengo deialdian eta 18:00etan bigarrenean.*

*Asanbladak ondorengo **gai-zerrenda** izango du aztergai:*

- 1. Aurreko Asanbladaren aktaren onarpen txostenaren irakurketa.*
- 2. Bazkide bi izendatu Asanbladaren akta onartu dezaten.*
- 3. 2015 ekitaldiaren urteko kontuen eta emaitzaren banaketaren aurkezpena, eta hala badagokio, onarpena.*
- 4. 2016ko Laudio Ikastolako egoera ekonomikoaren azterketa, aurrekontuen aurkezpena eta kuota proposamenaren aurkezpena.*
- 5. Mantentze lanetarako txandaren funtzionamenduaren planteamenduaren balorazioa.*
- 6. Gelako Guraso Ordezkariek izendatzeko ekimenaren aurkezpena.*
- 7. Jarduera pedagogikoari buruzko informazioa.*
- 8. Eskari-galderak.*

*Ohar metodologikoak:*

- a) Asanblada egunean 2.deialdira, 18:00etakora, azaltzea gomendatzen da.*
- b) Bazkide guztiek Asanbladan aztergai izango diren gaien inguruko informazioa bilduko duen txostena eskuratuko dute.*



## 2016KO APIRILAREN 19KO OHIKO ASANBLADA OROKORRA

*Aztergai izango diren puntuen garrantzia ikusirik, bazkide guztiei Batzar Nagusira azaltzearen garrantzia ekarri nahi die gogora Artezkaritza Kontseiluak. Kooperatibaren estatutuen 25. artikuluan ezarritakoari jarraituz, bazkide bakoitzak norberarenaz gain bazkide biren ordezkaritza bete ahal izango du Batzarrean.*

*Prozedura hau bideratzeko, orrialde honen beheko zatian helarazten den akreditazio eredu behar bezala beteta eta izenpeturik aurkeztu beharko da Batzarrerako sarreran.*

*Familia bakoitzeko aita eta amak botu bana dute Asanbladan, bietako bakar bat etorrita bestearen botu delegatua behar bezala ekartzea eskatzen dizuegu.*



## BOTU ESKUORDETUA

\_\_\_\_\_ Jaun/Andereak, \_\_\_\_\_ ENA

zenbakia duenak eta \_\_\_\_\_ko auzokidea, Laudio Ikastola Koop. Elkarteko bazkide bezala

\_\_\_\_\_ bazkideari ematen diot nire ordezkari-

tza 2015eko martxoaren 17an ospatuko den Ohiko Asanblada Orokorrerako, ezina baitut agerian

bertora azaltzea.

\_\_\_\_\_n 2016ko apirilaren \_\_\_\_\_an.

Ordezkaritza onartzen dut,

\_\_\_\_\_ -k izenpetua

\_\_\_\_\_ -k izenpetua